

EGUNEROKOA

2020ko urriaren 13a

Gaur irakasleak Ane Franki buruz egin deusku berba. Neska hau gerra sasoian bere familiagaz batera ezkutuan bizi izan zan. Bere egunerokoan idatzi ebazan urte bi luzetan izandako bizipenak, bildurrak eta ametsak. Egunerokoa idazten hasi zanean hamahiru urte besterik ez ebazan eta sekretuan idatzi baeban be, gerora mundu osoan liburu irakurrienetarikoa izango zan.

Niri be idazteko gogo sortu jat eta isilpean egingo dot. Batek daki nire eguneroko be famatua bihurtzen dan...

Ondo pentsatzen hasita niri be tokatu jat etxetik urten ezinik egon beharreko aldikada luzea. Covid19 izeneko birus gaizto batek mundu osoa gelditu dau eta oraindik be kontu handiz ibili behar izaten dogu.

Bihar idatziko dot honen inguruko kontu gehiago.

Maitane

1.- Irakurri dozun testu hori zer da?

☐	Eskutitz bat	☐	Alegia
☐	Egunkariko albistea	☐	Abestia
☐	Egunerokoa	☐	Olerkia



2.- Zer gertatu da? Esan egia ala guzurra dan:

- ... Goiko testua Ane Frank izeneko neska batek idatzi dau.
- ... Ikastolan egunerokoari buruz ikasten dabilz.
- ... Ane Frankek idatzi eban egunerokoa oso famatua egin zan.
- ... Maitanek 2020ko azaroaren 13an idatzi dau
- ... Maitanek ez dauka ezer bitxirik idazteko bere egunerokoan.
- ... Maitane gogotsu dabil egunerokoa idazteko eta bihar idazten jarraituko dau.

3.- Oso tu esaldiak, honeetarik bat idatziz:

andereñoa - Ane Frank - Maitane

-k Ane Franki buruz egin deutsie berba bere ikasleei.
- gerra garaian bere familiagaz ezkutuan bizi zan.
- Egunerokoa idazten jarraituko dau-k.
- eta aldikada luzea egon dira etxetik urten ezinik.
- bere bizipenak, bildurrak eta ametsak idatzi ebazan.
- ren egunerokoa ez dau inork irakurri.
- Orain kontuz baina kalera urten daiteke.

4.-Lotu alde bietakoak zentzundun esaldiak lortzeko:

- Familia osoa ezkutuan bizi zan famatua egin daitekela uste dau..
- Ane Frankek bi urte luzetan baina kontu handiz ibili behar dau..
- COVID19ak idatzi eban egunerokoa..
- Maitanek bere egunerokoa mundu osoan izan dau eragina..
- Gaur egun Maitane kalera urten daiteke, gerratik babesteko..

5.-Bilatu baltzago dagozan berben ordezkioak esaldiaren zentzua aldatu ez daiten

- Bere familiagaz batera **ezkutuan** bizi izan zan.
- Egunerokoa idazten hasi zanean hamahiru urte **besterik** ez ebazan.
- Niri be idazteko gogo sortu jat eta **isilpean** egingo dot.